

LA INFANCIA DE ZALACAÍN

CAPÍTULO PRIMERO

CÓMO VIVIÓ Y SE EDUCÓ MARTÍN ZALACAÍN

Un camino en cuesta baja de la Ciudadela pasa por encima del cementerio y atraviesa el portal de Francia. Este camino por la parte baja, después de entrar en la ciudad, se convierte en calle. A la izquierda del camino, antes de la muralla, había hace años un caserío viejo. En el frente de la decrepita casa, un agujero indicaba dónde estuvo en otro tiempo el escudo, y debajo de él se adivinaban, más bien que se leían, varias letras que componían una frase latina: “Post funera virtus vivit”.

En este caserío nació y pasó los primeros años de su infancia Martín Zalacaín de Urbia, el que, más tarde, había de ser llamado Zalacaín el Aventurero.

Los Zalacaín vivían a pocos pasos de Urbia, pero ni Martín ni su familia eran ciudadanos; faltaban a su casa unos metros para formar parte de la villa.

El padre de Martín fue labrador, un hombre obscuro, muerto en una epidemia de viruelas; la madre de Martín tampoco era mujer de carácter. Al morir su marido, quedó con dos hijos: Martín y una niña menor, llamada Ignacia.

El caserío donde habitaban los Zalacaín pertenecía a la familia de Ohando, familia la más antigua aristocrática y rica de Urbia.

Vivía la madre de Martín casi de la misericordia de los Ohandos.

En tales condiciones de pobreza y de miseria, parecía lógico que Martín fuese como su padre y su madre, obscuro, tímido y apocado; pero el muchacho resultó decidido y audaz.

ZALAKAINEN HAURTZAROA

I

NOLA BIZI ETA HAZI ZEN MARTIN ZALAKAIN

Zitadelatik bide bat jaisten da maldan behera, kanposantuaren gainetik pasatu eta Frantziako portalea igarotzen du. Bide horrek, behealdean, hirian sartu ondoren, kale bihurtzen da. Bidearen ezkerrean, harresia baino lehen, baserri zahar bat zegoen aspalde. Etxe zahar haren aurrealdean, zulo batek adierazten zuen non zegoen garai batean armarria, eta haren azpitik latinezko esaldi bat osatzen zuten hainbat letra sumatzen ziren, irakurri baino areago: “Post funera virtus vivit”.

Baserri hartan jaio zen eta eman zituen haurtzaroko lehen urteak Martin Zalakain Urbiakoak, geroago Zalakain Abenturazalea deituko zutenak.

Zalakaindarrak Urbiatik urrats gutxira bizi ziren; baina ez Martin ez haren familia ez ziren hiritarrak; metro batzuk falta zituen etxeak hiriaren parte izateko.

Martinen aita nekazaria zen, gizon iluna, eta baztanga-izurri batean hil zen. Martinen ama ere ez zen nortasun handiko emakumea. Senarra hil zitzaionean bi umerekin geratu zen: Martin eta Ignazia izeneko neska gazteago bat.

Zalakaindarrak bizi ziren baserriaren jabeak ohandotarrak ziren, Urbiako familiarik zaharrena, aristokratikoena eta aberatsena.

Martinen ama ohandotarren errukitik bizi zen kasik.

Pobretasunezko egoera hartan, berez zerorren gauza ematen zuen, Martin aita-amak bezalako izatea, iluna, herabea eta uzkurra; erabakia, eta ausarta atera zen ordea.

En esta época, los chicos no iban tanto a la escuela como ahora, y Martín pasó mucho tiempo sin sentarse en sus bancos. Le alejaba también de aquel modesto centro de enseñanza el ver que los chice los chicos de la calle no le consideraban como uno de los suyos, a causa de vivir fuera del pueblo y de andar siempre hecho un andrajoso.

Por este motivo les tenía algún odio; así que cuando algunos chiquillos de los caseríos de extramuros entraban en la calle y comenzaban a pedradas con los ciudadanos, Martín era de los más encarnizados en el combate.

Tenía entre los demás chicos el ascendiente de su audacia y de su temeridad. No había rincón del pueblo que Martín no conociera.

Nadie se ocupaba de él, no compartía con los demás chicos la escuela y huroneaba por todas partes.

Mientras los niños de su edad aprendían a leer, él daba la vuelta a la muralla, sin que le asustasen las piedras derrumbadas, ni las zarzas que cerraban el paso.

Un día, al salir de la escuela, Carlos Ohando, el hijo de la familia rica que dejaba por limosna el caserío a la madre de Martín, señalándole con el dedo, gritó:

—¡Ese! Ese es un ladrón.

—¡Yo! —exclamó Martín.

—Tú, sí. El otro día te vi que estabas robando peras en mi casa. Toda tu familia es de ladrones.

Garai hartan, haurrak ez ziren orain bezain beste joaten eskolara, eta Martinek denbora asko eman zuen eskolako bankuetan eseri gabe. Era berean, kaleko mutilek, Martin herritik kanpo bizi zela eta zarpail jantzita ibiltzen zela-eta, ez zuten beren parekotzat hartzen, eta horrek ere urruntzen zuen mutila ikastetxe apal hartatik.

Horregatik, gorroto pixka bat zien; hala, harresiez kanpoko baserrietako ume batzuk kalean sartu eta hiritarrei harrika ematen hasten zirenean, Martin izaten zen gudu gogorrenetakobat.

Gainerako mutilen gainean adorearen eta ausarkeriaren itzala zuen. Ez zen herrian Martinekezagutuko ez zuen bazterrik.

Inor ez zen Martinez arduratzen, ez zen beste mutilekin eskolara joaten eta toki guztietan miaketan ibiltzen zen

Bere adin bereko haurrak irakurtzen ikasten ari ziren bitartean, Martinek buelta ematen zion harresiari, erortzen ziren harriekin edo harriekin edota bidea eragozten zioten sasiekin batere ikaratu gabe.

Egun batean, eskolatik ateratzean, Karlos Ohandok, Martinen amari baserria limosna moduan uzten zion familia aberatseko semeak, esan zuen garrasika, Martin behatzarekin seinalatuz:

Hori; Hori lapurra da.

Ni! Oihu egin zuen Martinek.

Hi, bai. Lehengo batean gure etxean udareak lapurtzen ikusi hindudan. Hire familian lapurrak dituk denak.

Martín, aunque respecto a él no podía negar la exactitud del cargo, creyó no debía permitir este ultraje dirigido a los Zalacaín y, abalanzándose sobre el joven Ohando, le dio una bofetada morrocotuda. Ohando contestó con un puñetazo, se agarraron los dos y cayeron al suelo, se dieron de trompicones, pero Martín, más fuerte, tumbaba siempre al contrario.

La madre de Martín, quiso obligar a su hijo a presentarse en casa de Ohando y a pedir perdón a Carlos, pero Martín afirmó que antes lo matarían.

Desde entonces, la madre miraba a su hijo como a un réprobo.

—¿De dónde ha salido este chico así! —decía.

Martini, berari zegokionez kargu horren zehaztasuna ezin ukatu bazuen ere, zalakaindarrei egindako irain hura ezin onartuzkoa irudi zitzaion, eta, Ohando gazteari ekinez, ikaragarrizko matrailekoa eman zion. Ohandok ukabilkada batekin erantzun zion, heldu zioten biek elkarri eta lurrera erori ziren; mutur-joka aritu ziren, baina Martinek, bestea baino indartsuagoa baitzen, behin eta berriz eraisten zuen aurkaria.

Martinen amak, semea ohandotarren etxera joatera eta Karlosi barkazioa eskatzera behartu nahi izan zuen, baina lehenago hilko zutela esan zuen Martinek.

Harrezkeroztik, elizak gaitzetsia bailitzan begiratzen zion amak semeari.

Nondik atera ote da mutil hau horrelakoa!- esaten zuen.